

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak PFEZren aitopenenaren simulatzailea aktibatu du

*11.500 pertsona baino gehiagok erabili zuten tresna hori erabaki fiskalak urtea amaitu aurretik hartzeko*

Lunes, 10 de diciembre de 2012

Nafarroako Zerga Ogasunak 2012ko gastuei dagokien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitopenenaren simulatzaile ofiziala aktibatu du jada [www.navarra.es-en](http://www.navarra.es-en) [Zerbitzuen Katalogoan](#), eta haren aurkezpen ofiziala datorren udaberrian egingo da.

Simulatzaile horren erabilera anonimoa da eta informazio-izaera du. Haren emaitzak ez du zergaduna eta Ogasuna lotesle egiten, baina erabilgarria da errenta-aitopenenaren emaitza kalkulatzeko eta era horretan erabaki fiskalak hartu ahal izateko urtea amaitu baino lehen.

Izan ere, simulatzaileak urtero jasotzen dituen kontsulten heren bat ia abenduan egiten da. Zehazki, 2011ko PFEZren aitopenerako abian jarri zen tresnak 34.970 kontsulta izan zituen, eta kopuru horretatik 11.658 abenduan izan ziren.

Aplikazioan sartzeko ez da inolako baimenik behar. 2012ko diru-sarrerei dagozkien datuak sartu ondoren, sistemak Errenta Aitopenerako emaitzaren kalkulua egiten du [indarrean dagoen araudiari](#) erantzunez. Prozesua amaitzean ez da sartu diren inolako datu-erregistrorik biltegitratzen; hala, simulatzailea erabiltzeak ez du aitopenen formal bat aurkeztetik salbuetsiko behin kanpaina 2013ko bigarren hiruhilekoan zabaltzen denean.